

SANMIGELGAÑA

Iruñean, 2004ko irailaren 28an.

*Andres Iñigo,
Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeburua
eta Nafarroako ordezkaria*

Nafarroako Doneztebe herriko San Migel izeneko auzoaren goiko aldean hondarreko urte hauetan etxebizitza berriak egin direla eta, Malerrekako Mankomunitateko euskara zerbitzutik galdegin digute gaztelaniaz *Alto San Miguel* izena eman nahi zaion auzo berri horren euskarazko ordaina zein izanen litzatekeen.

Erantzuna

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak joan den 2004ko irailaren 23an Ziordian egindako bilkuran, eskaria aztertu ondoren, honako hau jakinaraztea erabaki zuen:

1. Euskaltzaindiaren kompetentzia ez bada ere, Onomastika batzorde honen ustez, *Alto San Miguel* izenak «San Migeleko mendi kaskoa» erran nahi du, eta ez, kontsulta gutunaren arabera adierazi nahi dena, hots, «San Migel auzoaren gaineko aldea». Azken honen gaztelaniazko izena *San Miguel Alto* izanen litzateke. Eremu ez euskaldunean badira horrelakoak, bertzeak bertze, *Beloso Alto* Iruñean.
2. Kontuan izanik Doneztebe herri euskalduna dela, eta gainera euskal eremuan kokatua, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak adierazi nahi du herri honetako auzo bati, berria bada ere, euskara hutsean jarri behar zaiola izena, ez bikoitza (euskaraz eta gaztelaniaz). Oraindik gehiago, auzo horren erreferentzia daramaten Doneztebeko mikrotoponimoak euskarazkoak dira, hala nola, *Sanmigelazpia*, *San Migeleko bidea*, *San Migeleko bizkarra*, *San Migeleko landa*, A. Iñigoren *Toponomástica histórica del Valle de Santesteban de Lerín*, Nafarroako Gobernua 1996, eta *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* bilduma-

ren LVII zenbakiaren «Doneztebe» atalean (81-100 or.), Nafarroako Gobernua 1999, liburuetan ageri den bezala.

3. Izen berri honen proposamena egiteko, Onomastika batzordeak bertako toponimiaren ezaugarriak izan ditu kontuan. Aipatutako lanetan argi ageri da toki baten gaineko lur zatia deitzeko erabiltzen den atzizkia *-gaña* dela. Horren lekuko dira Doneztebeko *Bidegaña*, *Bordagaña*, *Bunakorrigaña*, *Depositogaña*, *Masiketagaña*, *Presagaña*, *Zalkobegaña* toponimoak.

Arrazoi horietan guztietan oinarrituta, jasotako kontsulta gutunean aipatzen den lur eremua izendatzeko, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak izen hau proposatzen du: **Sanmigelgaña**.